



Aretxabaletako
Udala



ARETXABALETAKO UDALAREN ETA LEKAIXOKA BERTSO ESKOLAREN ARTEKO

HITZARMENA

ARETXABALETAN HAINBAT NORMALIZAZIO-LAN LANKIDETZAZ BURUTZEKO

Aretxabaletan, bi mila eta hamaseiko maiatzaren 25ean

BILDURIK

Batetik, **UNAI ELKORO OIANGUREN**, ARETXABALETAKO UDALeko alkatea, haren izenean eta ordezkariaren, horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Eta bestetik, **MIKEL MENDIARAZ URIBETXEBERRIA** presidentea, elkartearen izenean eta horren ordezkari gisa.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

Aretxabaletako udalak, udalerrian euskaraz bizitzeko dauden aukerak areagotu nahirik, hainbat esparrutan euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura bultzatuko duten ekintzak antolatzekeko laguntza eman nahi duela

Halaber, Lekaixoka Bertso eskola euskararen erabileraren alorrean hainbat normalizazio-lan burutzen ari dela eta hauen guztiaren onuradun Aretxabaletako herria dela,

Lekaixoka Bertso Eskola irabazi asmorik gabeko elkarte dela, eta komenigarria dela egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta, bide batez, honen geroa ziurtatu eta sendotzea.

Arestian aipatutakoa horrela izanik, HITZARMEN hau sinatu dute, ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmen honen helburua da Lekaixoka Bertso eskolak eta Aretxabaletako Udalak, elkarlanean 2016 urtean burutuko dituzten normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bidez, ondoren azaltzen diren jarduerak eta normalizazio-lanak lagunduko ditu diruz Aretxabaletako Udalak, eta hitzarmen honetan



Aretxabaletako
Udala



% 70a, ekainaren hasieran jasoko du eta falta den %30a diru laguntza zuritzeko dokumentazioa ekarritakoan, eta edozein kasutan, hurrengo urteko urtarrilaren 15a baino lehen. Diru laguntzaren lehen zatia jasotzeko Lekaixoka Bertso eskolak ez du diru laguntza zuritzeko dokumentaziorik ekarri beharko, aurrerakin moduan emango baitio diru laguntza Udalak egitasmoak lehenbailehen abian jartzeko. Bigarren zatia jaso baino lehen, diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, zergak eta gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta diru laguntza osoa zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak ekarriko ditu.

BOSGARRENA.- Aretxabaletako Udalaren eta Lekaixoka Bertso Eskolaren ordezkari osatutako lan-taldeak bilera egingo du urtean bi aldiz Batetik, hitzartutakoaren jarraipena gauzatzeko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta bestetik, dokumentu honetako bigarren artikuluan ere aipatzen den moduan, hizkuntza normalizazioaren alorrean aurrerabideak aztertu eta beharrezkoak izan daitezkeen egitasmo berriak abian jartzeko.

SEIGARRENA.- Lekaixoka Bertso eskolak diru-laguntzaren onuradun den aldetik, honako betebeharrak hauek izango ditu:

- ❖ Diru-laguntza hitzarmenean adierazitako helburu zehatzetarako erabili beharko du.
- ❖ Hitzarmenean aurreikusitako egitasmoa osotasunean gauzatu beharko du. Nolanahi ere, aldaketak aurreikusiko balira, aldeztu aurretik adostu beharko dira eta Euskara Batzordearen oniritzia izan.
- ❖ Antolaketaerako ezarritako ratioak errespetatuko dira (5 ikasleko irakasle bat)
- ❖ Lekaixoka Bertso eskolak eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du, laguntzaren xedearen fiskalizazio-funtzioak betetze aldera.
- ❖ Era berean, hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak burutzeko beste erakunde publiko zein pribaturen baten diru-laguntzak jaso badira, Lekaixoka Bertso eskolak horren berri eman beharko dio UDALari.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen honetan jasotako betebeharren bat betetzen ez baldin bada, hitzarmen hau bertan behera geldituko da.

Horretaz gain, Lekaixoka Bertso eskolak diru-laguntza osoa edo diru-laguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia hartuko da.

Ondoren aipatuko diren kasuak izango dira hitzarmena bete ez izanaren arrazoi. Hori dela-eta, diru laguntza-kentzeko edo, premiazko bidez, diru-laguntza itzularazteko arrazoi izango dira:

- Eskaeraren datuetan gezurrak sartzea.
- Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzea.
- Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean ez aurkeztea.
- Diru-laguntza eman den xederako ez erabiltzea.